29. klausula.- Kontratuko obligazioak ez betetzeagatiko zehapenak Zigorrak ezarri ahalko dira kontratuaren helburu den prestazioa behar ez bezala emateagatik edo kontratua egikaritzeko konpromisoak edo baldintza bereziak 202. artikuluaren 1. apartatuarekin bat etorriz ezarritakoak– ez betetzeagatik. Zigor horiek **ezaugarri koadroaren 24. atalean** azaltzen dira.	**Cláusula 29.- Penalidades por incumplimiento de obligaciones contractuales** El cumplimiento defectuoso de la prestación objeto del contrato o el incumplimiento de los compromisos o de las condiciones especiales de ejecución del contrato que se hubiesen establecido conforme al apartado 1 del artículo 202 de la LCSP 2017 dará lugar a la imposición de las penalidades previstas en el **apartado 24**

Kontratistak kontratuan zehazten diren prestazioak emateko zeregina partzialki urratu badu berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Toki Entitateak, **ezaugarri koadroaren 24. atalean** aurreikusten diren zigorrak ezarri dakioke.	del Cuadro de Características. Si el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecución del contrato, la Entidad Local podrá imponer las penalidades previstas en el citado **apartado 24**.
Kontratistak kontratua egikaritzeko finkatutako azken epearen barruan bete behar du kontratua; elkarren jarraian jarritako epe partzialak ere bete egin behar ditu. Kontratista berandutze-egoeran sartzeko, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik ohartarazpena egitea.	El contratista está obligado a cumplir el contrato dentro del plazo total fijado para la realización del mismo, así como de los plazos parciales señalados para su ejecución sucesiva. La constitución en mora del contratista no precisará intimación previa por parte de la Administración.
Kontratatutako enpresak hari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik ez badu bete agiri teknikoan eta agiri honen 26, 27 eta 28. klausuletan adierazitako prestazioen egikaritze partziala, administrazioak horiek suntsiaraztea erabaki ahal izango du, bermea galarazita, edo zehapen bat ezarri dezake aipatutako bi kasuetako bakoitzean, kontratuaren prezioaren % 10, gehienez ere.	Cuando la empresa contratada, por causas imputables a la misma, hubiere incumplido lo dispuesto en las cláusulas 26, 27 y 28 de este pliego, la Administración podrá optar, indistintamente, por su resolución, con pérdida de la garantía, o por la imposición de una penalidad, en cada uno de los dos supuestos señalados, no superior al 10% del precio del contrato.
Zigorrak kontratazio-organoaren erabakiz ezarriko dira. Erabaki hori kontratuaren arduradunaren proposamenez hartuko da, izendatu bada, eta berehala betearaziko da. Zigorrak kontratistari, ordainketa oso edo partzial gisa, ordaindu behar zaizkion zenbatekoak kenduta ordainduko dira, edo eratutako bermea kenduta, ordainketa horietatik kendu ezin direnean.	Las penalidades se impondrán por acuerdo del órgano de contratación, adoptado a propuesta del responsable del contrato si se hubiese designado, que será inmediatamente ejecutivo, y se harán efectivas mediante deducción de las cantidades que, en concepto de pago total o parcial, deban abonarse al contratista o sobre la garantía que, en su caso, se hubiese constituido, cuando no puedan deducirse de los mencionados pagos.
30. klausula.- Kontratua lagatzea	**Cláusula 30.- Cesión del contrato**
Kontratutik eratorritako eskubideak eta obligazioak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratistak, kontratuaren ezaugarrien taularen **24. atalean** hori adierazten bada, baldin eta lagatzailearen gaitasun teknikoak edo pertsonalak ez badira izan kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria, eta lagapenetik ez bada merkatuko lehia egiaz mugatzen. Ezingo da baimendu hirugarren batentzako	Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato podrán ser cedidos por el contratista a un tercero cuando así lo señale el **apartado 24** del Cuadro de Características del Contrato, siempre que las cualidades técnicas o personales del cedente no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato, y de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado. No podrá

lagapena horren ondorioz nabarmen aldatzen badira kontratistaren ezaugarriak, kontratuaren funtsezko elementu bat badira. Kontratistek beren eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, baldintza-agirietan, gutxienez, honako baldintza hauek jaso beharko dira:	autorizarse la cesión a un tercero cuando esta suponga una alteración sustancial de las características del contratista si estas constituyen un elemento esencial del contrato. Para que los contratistas puedan ceder sus derechos y obligaciones a terceros, los pliegos deberán contemplar, como mínimo, la exigencia de los siguientes requisitos:
Kontratazio organoak aurrez eta berariaz baimendu beharko du lagapena. Baimen hori emango da soilik emango da geroago adierazitako baldintzak betetzen badira. Baimen eskaeraren inguruko ebazpena jakinarazteko epea bi hilekoa izango da. Hori igaro ostean, ulertuko da isiltasun administratiboagatik eman egin dela.	El órgano de contratación ha de autorizar, de forma previa y expresa, la cesión. Dicha autorización se otorgará siempre que se den los requisitos que se señalan después. El plazo para la notificación de la resolución sobre la solicitud de autorización será de dos meses, trascurrido el cual deberá entenderse otorgada por silencio administrativo.
- Lagatzaileak gutxienez kontratuaren 100eko 20 egikarituta izatea. Baldintza hori ez da aplikatuko lagapena gertatzean kontratista konkurtsoan badago, likidazio fasea ireki bada ere, edo epaitegi eskudun bati jakinarazi badio, konkurtsoa ireki dadin, negoziatzen hasi dela birfinantzazio akordio bat lortzeko edo hitzarmen proposamen aurreratu baterako atxikipenak lortzeko, konkurtsoen alorreko legedian aurreikusitako baldintzetan.	-. Que el cedente tenga ejecutado al menos un 20 por 100 del importe del contrato. No será de aplicación este requisito si la cesión se produce encontrándose el contratista en concurso aunque se haya abierto la fase de liquidación, o ha puesto en conocimiento del juzgado competente para la declaración del concurso que ha iniciado negociaciones para alcanzar un acuerdo de refinanciación, o para obtener adhesiones a una propuesta anticipada de convenio, en los términos previstos en la legislación concursal.
- Lagapendunak gaitasuna izatea tokiko erakundearekin kontratatzeko eta kontratua egikaritzeko fasearen arabera eskatu dakiokeen kaudimena izatea. Behar bezala sailkatuta egon beharko da, lagatzaileari baldintza hori eskatu bazaio, eta ezingo du kontratatzeko debekurako arrazoirik eduki.	**-** Que el cesionario tenga capacidad para contratar con la Entidad Local y la solvencia que resulte exigible en función de la fase de ejecución del contrato, debiendo estar debidamente clasificado si tal requisito ha sido exigido al cedente, y no estar incurso en una causa de prohibición de contratar.
- Esleipendunaren eta lagapendunaren arteko lagapena eskritura publikoan formalizatzea.	- Que la cesión se formalice, entre el adjudicatario y el cesionario, en escritura pública.
Lagapenduna subrogatuta geldituko da lagatzaileari zegozkion eskubide eta obligazio guztietan.	El cesionario quedará subrogado en todos los derechos y obligaciones que corresponderían al cedente.
31. klausula.- Kontratistari eskatu dakizkiokeen obligazioak, gastuak eta zergak	**Cláusula 31.- Obligaciones, gastos e impuestos exigibles al contratista**
Kontratistak ordaindu beharko ditu kontratua	Son de cuenta del contratista los gastos de

formalizatzeko gastuak, eskritura publiko egin nahi badu.	formalización del contrato en el supuesto de elevación a escritura pública.
Horrez gain, enpresak kontratua betetzeko egin beharreko gastu guztiak ordaindu beharko ditu, adibidez, gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruenak, garraioarenak eta joan-etorrienak, materialenak, instalazioenak, bere karguko langileen ordainsarienak, egiaztatze eta entseguenak, tasak eta zerga mota guztiak, BEZ, jarduera egiteagatik dagokion zerga eta kontratuaren indarraldian hura egikaritzetik eratorri daitekeen beste edozein. Horiek ezingo dira partida independente moduan jasanarazi.	Asimismo vendrá obligado a satisfacer todos los gastos que la empresa deba realizar para el cumplimiento del contrato, como son los generales, financieros, de seguros, transportes y desplazamientos, materiales, instalaciones, honorarios del personal a su cargo, de comprobación y ensayo, tasas y toda clase de tributos, el IVA, el impuesto que por la realización de la actividad pudiera corresponder y cualesquiera otros que pudieran derivarse de la ejecución del contrato durante la vigencia del mismo, sin que por tanto puedan ser éstos repercutidos como partida independiente.
32. klausula.- Udalaren betebeharrak	**Cláusula 32.- Obligaciones del Ayuntamiento**
1.- Hitzartutako prezioa ordaintzea kontratistari, 24. klausulan azaldutakoaren arabera.	1.- Abonar a la contratista el precio estipulado, de la manera señalada en la cláusula 24.
2.- Kontratuan jarritako eginkizunak betetzeko behar adinako laguntza eskaintzea lana hartzen duen erakundeari.	2.- Prestar a la entidad adjudicataria la colaboración necesaria para el cumplimiento de las prestaciones objeto del contrato.
33. klausula.- Kontratua egikaritzea	**Cláusula 33.- Ejecución del contrato**
Kontratua egikarituko da haren klausuletan eta agirietan ezarritakoari jarraituz, kontratuaren arduradunak kontratistari hura interpretatzeko emandako jarraibideei jarraituz, arduraduna izendatu bada.	El contrato se ejecutará con sujeción a lo establecido en su clausulado y en los pliegos, y de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diere al contratista el responsable del contrato, en los casos en que se hubiere designado.
Bestela, funtzio hori kontratazio organoaren mendeko zerbitzuei dagokie (SPKL 2017ren 311. artikulua).	En otro caso, esta función le corresponderá a los servicios dependientes del órgano de contratación (artículo 311 de la LCSP 2017).
34. klausula.- Ezinbesteko kasuak	**Cláusula 34.- Fuerza mayor**
Ezinbesteko kasuetan, kontratistak arduragabe jardun ez badu, kontratua egikaritzean sortutako kalte-galerengatiko kalte ordain baterako eskubidea izango du.	En casos de fuerza mayor y siempre que no exista actuación imprudente por parte de la contratista, este tendrá derecho a una indemnización por los daños y perjuicios, que se le hubieren producido en la ejecución del contrato.

Honako hauek joko dira ezinbesteko kasutzat: - Atmosferako elektrizitateak sortutako suteak. - Eragin katastrofikoak dituzten fenomeno naturalak, adibidez, lurrikarak, erupzio bolkanikoak, luiziak, itsas ekaitzak, uholdeak eta antzekoak. - Gerra garaian bortizkeriaz eragindako kalteak, lapurreta jendetsuak edo ordena publikoaren nahasmenduak (SPKL 2017ren 239. artikulua).	Tendrán la consideración de casos de fuerza mayor los siguientes: - Los incendios causados por la electricidad atmosférica. - Los fenómenos naturales de efectos catastróficos, como maremotos, terremotos, erupciones volcánicas, movimientos del terreno, temporales marítimos, inundaciones u otros semejantes. - Los destrozos ocasionados violentamente en tiempo de guerra, robos tumultuosos o alteraciones graves del orden público (artículo 239 de la LCSP 2017).
35. klausula. Kontratistaren erantzukizuna kalte eta galerengatik	**Cláusula 35.- Responsabilidad del contratista por daños y perjuicios**
Kontratistak ordainduko du kontratua gauzatzeko egin beharreko jardueren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztien kalte ordaina.	Será obligación de la contratista indemnizar todos los daños y perjuicios que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato.
Kalte eta galera horiek Toki Erakundearen agindu zuzen eta berehalako baten ondorioz gertatu badira, hark edukiko du haiekiko erantzukizuna, Legeek ezarritako mugen barnean.	Cuando tales daños y perjuicios hayan sido ocasionados como consecuencia inmediata y directa de una orden de la Entidad Local, será esta responsable dentro de los límites señalados en las Leyes.
Ekintza gertatu eta hurrengo urtearen barruan, hirugarrenek aldez aurretik kontratazio organoari eskatu ahal izango diote, hark jakinarazi dezan, kontratistari entzun ondoren, zein alderdi kontratatzaileri dagokion kalteen erantzukizuna. Ahalmen hori erabiltzeak eten egingo du ekintza baliogabetzeko epea.	Los terceros podrán requerir previamente, dentro del año siguiente a la producción del hecho, al órgano de contratación para que éste, oído la contratista, informe sobre a cuál de las partes contratantes corresponde la responsabilidad de los daños. El ejercicio de esta facultad interrumpe el plazo de prescripción de la acción.
Kalte horien erreklamazioa kasu bakoitzean aplikagarri den legeriak xedaturiko prozeduraren arabera egingo da betiere.	La reclamación de aquellos se formulará, en todo caso, conforme al procedimiento establecido en la legislación aplicable a cada supuesto.
2017ko SPKLren 311. artikuluaren arabera, kontratista izango da egiten dituen lanen eta gauzatutako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea, bai eta kontratua egikaritzean Administrazioari edo hirugarrenei eragindako ez egiteen, akatsen, metodo ez	La contratista de acuerdo con el 311 de la LCSP 2017 será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceros de las

egokien edo konklusio okerren erantzulea ere.	omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.
36. klausula. Kontratuaren zuzendaritza eta ikuskaritza	**Cláusula 36.- Dirección y supervisión del contrato**
Kontratuaren Arduradunari dagozkio atal horretan egikaritzea ikuskatzea eta behar diren erabakiak hartzea eta jarraibideak agintzea, adostutako prestazioa behar bezala egikaritzen dela ziurtatzeko xedean, betiere haiek ematen dizkioten eskumenen esparruan.	Corresponde al Responsable del Contrato que en dicho apartado se precisa supervisar su ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada, dentro del ámbito de facultades que aquellos le atribuyan.
37. klausula. Kontratuaren aldaketa (2017ko SPKLaren 242. artikulua)	**Cláusula 37.- Modificación del contrato (Artículo 242 de la LCSP 2017)**
Haren araubideari dagokionean, honako hauek beteko dira: 2017ko SPKLren 190, 191, 203 – 207 artikuluak eta 2017ko SPKLren hirugarren xedapen gehigarria; eta APKLAOren 97. eta 102. artikuluak.	En lo concerniente a su régimen se estará a lo dispuesto en los artículos 190,191, 203 a 207 de la LCSP 2017 y la disposición adicional tercera de la LCSP 2017; y en los artículos 97 y 102 del RGLCAP.
Kontratua honako kasu hauetan aldatu ahal izango da: - Kontratuaren xedea barne hartzen duten 4 loteetan sartuta ez dauden polizak kontratatzeko beharra. - Aseguratutako ondasunen kopurua aldatzen denean (bajak eta eransketak). Aurreikusitako aldaketen izaerak prozedura arin bat eskatzen du, bateratzeko zaila dena kontratu honen kontratazio-organoak (Osoko Bilkura) bilerak egiteko ezarritako deialdi-beharrarekin eta aldizkakotasunarekin. Horregatik, Alkateari baimena ematen zaio adierazitako aldaketak egiteko eta aldaketa ondoren egiten den lehenengo bilkuran osoko bilkurari emandako Ebazpenaren berri emango zaio. Nolanahi ere, aldaketak, banaka edo batera hartuta, baldintza-agiri honen 6. klausulan ezarritakoaren ondorioz gerta daitezkeen gehikuntzei gehituta, ezin izango da inoiz	Podrá modificarse el contrato en los siguientes supuestos: - Necesidad de contratar pólizas no incluidas en los 4 lotes que comprendan el objeto del contrato. - Cuando se den modificaciones del número de bienes asegurados, (bajas e incorporaciones). El carácter de las modificaciones previstas precisa de un procedimiento ágil, difícil de compaginar con la necesidad de convocatoria y periodicidad establecida para la celebración de sesiones por el órgano contratación del presente contrato (Pleno). Por esa razón, se faculta expresamente al Alcalde para efectuar las modificaciones indicadas, debiendo darse cuenta de la Resolución que se adopte al Pleno en la primera de las sesiones que celebre tras la modificación. En cualquier caso las modificaciones, aisladas o conjuntamente consideradas, sumadas a los posibles incrementos que puedan darse como consecuencia de lo

kontratuaren esleipen-prezioa % 20 baino gehiago igo.	establecido en la cláusula 6ª de este Pliego, nunca podrán suponer un incremento superior al 20% del precio de adjudicación del contrato.
Plegu honetan aurreikusi ez diren aldaketei dagokienez, 2017ko SPKLaren 205. artikuluan finkatutakoa beteko da. Kasu horietan, kontratazio organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistentzat, banaka edo guztiak batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20tik gorakoa ez den aldaketa dakartenean, BEZik gabe. Aurreko atalean xedaturikoaren arabera aldaketa derrigorrezkoa ez denean kontratistarentzat, hark idatziz adostasuna eman ondoren bakarrik adostuko du kontratazio organoak, eta bestela, kontratua indargabetu egingo da, SPKLren 206.2 artikuluaren arabera.	En lo que se refiere a las modificaciones no previstas en el presente pliego se estará a lo previsto en el artículo 205 de la LCSP 2017. En tales casos las modificaciones acordadas por el órgano de contratación serán obligatorias para los contratistas cuando impliquen, aislada o conjuntamente una alteración en su cuantía que no exceda del 20 por ciento del precio inicial del contrato. IVA excluido. Cuando de acuerdo con lo dispuesto en el apartado anterior la modificación no resulte obligatoria para el contratista, la misma solo será acordada por el órgano de contratación previa conformidad por escrito del mismo, resolviéndose el contrato, en caso contrario artículo 206 de la LCSP 2017.
Indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra sortutako zirkunstantziek eraginda dagoenean, kontratuaren lizitazioa egin zen unean ezin aurreikusi zitezkeen zirkunstantziek eraginda daudenean, betiere ondoko hiru baldintza hauek betetzen baldin badira:	Cuando la necesidad de modificar un contrato vigente se derive de circunstancias sobrevenidas y que fueran imprevisibles en el momento en que tuvo lugar la licitación del contrato, siempre y cuando se cumplan las tres condiciones siguientes:
1. Aldaketaren beharra Administrazio arduradun batek ezin aurreikusi zezakeen zirkunstantzia batek eraginda egotea. 2. Aldaketak kontratuaren izaera globala ez aldatzea. 3. Kontratuaren aldaketaren zenbatekoak, bereiz hartuta edo artikulu honen arabera adostutako beste aldaketekin batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 50a ez gainditzea, BEZa kanpo.	1. Que la necesidad de la modificación se derive de circunstancias que una Administración diligente no hubiera podido prever. 2. Que la modificación no altere la naturaleza global del contrato. 3. Que la modificación del contrato implique una alteración en su cuantía que no exceda, aislada o conjuntamente con otras modificaciones acordadas conforme a este artículo, del 50 por ciento de su precio inicial, IVA excluido.
Era berean, indarrean den kontratu bat aldatzen duten kontratazio organoek, kontratuak erregulazio harmonizatua bete behar duen ala ez duen aintzat hartu gabe eta edozein dela ere aldaketa justifikatzen duen arrazoia, betiere aldaketari buruzko iragarkia argitaratuko dute kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean, gehienez ere 5 eguneko epean, aldaketa onartzen denetik aurrera kontatuta.	Asimismo, los órganos de contratación que hubieren modificado un contrato durante su vigencia, con independencia de si este está o no sujeto a regulación armonizada y de la causa que justifique la modificación, deberán publicar en todo caso un anuncio de modificación en el perfil de contratante del órgano de contratación en el plazo de 5 días desde la aprobación de la misma.

IV.- KONTRATUA IRAUNGITZEA	IV.- EXTINCIÓN DEL CONTRATO
38. klausula. Kontratua betetzea, entrega gastuak, kontratuaren harrera eta instalazioak entregatzea.	**Cláusula 38.- Cumplimiento del contrato, gastos de entrega, recepción del contrato y entrega de las instalaciones.**
Kontratistak kontratua bete duela ulertuko da kontratista horrek prestazio osoa burutu duenean, kontratuan adierazitakoari jarraiki eta Toki Erakundeak eskatu bezala.	El contrato se entenderá cumplido por el contratista cuando este haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo y a satisfacción de la Entidad Local, la totalidad de la prestación.
2017ko SPKLren 311. artikuluaren arabera, Toki Erakundeak erabakiko du enpresa kontratistak eskainitako prestazioa berau gauzatzeko eta betetzeko ezarritako aginduetara egokitu den ala ez den eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak gauzatzeko eta harrera egitean sumaturiko akatsak zuzentzeko agindua emango du.	Conforme al artículo 311 de la LCSP 2017 la Entidad Local determinará si la prestación realizada por el contratista se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento, requiriendo, en su caso, la realización de las prestaciones contratadas y la subsanación de los defectos observados con ocasión de su recepción.
Egindako lanak ez badira kontratatutako prestazioetara egokitzen kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, Toki Erakundeak baztertu egin ditzake lan horiek, eta ez du haiek ordaintzeko betebeharrik izango, edo hala behar badu, ordaindutakoa itzultzeko eskatu ahal izango du.	Si los trabajos efectuados no se adecuan a la prestación contratada, como consecuencia de vicios o defectos imputables al contratista, podrá rechazar la misma quedando exento de la obligación de pago o teniendo derecho, en su caso, a la recuperación del precio satisfecho.
Kontratatutako prestazioa betetzearekin loturik egiten diren oharpenak ezagutzeko eta entzuna izateko eskubidea izango du kontratistak. Kontratazio organoak kontratistari eskatuko dio akatsak, gabezi teknikoak, akats materialak eta lege eta araudiaren arau-hausteak konpontzeko, horretarako epea emanez bi hilabeteko epea baino handiagoa ezin izango delarik	El contratista tendrá derecho a conocer y ser oído sobre las observaciones que se formulen en relación con el cumplimiento de la prestación contratada. El órgano de contratación exigirá la subsanación por el contratista de los defectos, insuficiencias técnicas, errores materiales, omisiones e infracciones de preceptos legales o reglamentarios que le sean imputables, otorgándole al efecto el correspondiente plazo que no podrá exceder de dos meses.
Epe hori igarota akats edo huts horiek zuzentzen ez badira, Administrazioak, gertatutako zirkunstantziak kontuan harturik, kontratua suntsitu ahal izango du edo beste epe bat eman ahal izango dio kontratistari.	Si transcurrido este plazo las deficiencias no hubiesen sido corregidas, la Administración podrá, atendiendo a las circunstancias concurrentes, optar por la resolución del contrato o por conceder un nuevo plazo al contratista.
Lehenengo kasuan, bermea konfiskatuko da	En el primer caso procederá la incautación de

eta Toki Erakundeari kontratuaren prezioaren ehuneko 25aren araberako kalte ordaina emateko obligazioa izango du kontratistak.	la garantía y el contratista incurrirá en la obligación de abonar a la Entidad Local una indemnización equivalente al 25 por ciento del precio del contrato.
Bigarren kasuan, zuzendu gabeko akatsak edo hutsak zuzentzeko emandako epe berria hilabete batekoa izango da, ezin luzatuko da epe hori, eta kontratuaren prezioaren ehuneko 25aren araberako zigorra ezarri ahal izango zaio kontratistari.	En el segundo caso el nuevo plazo concedido para subsanar las deficiencias no corregidas será de un mes improrrogable, incurriendo el contratista en una penalidad equivalente al 25 por ciento del precio del contrato.
Kontratistak, emandako azken epea baino lehen edozein unetan uko egiten badio kontratua gauzatzeari, kontratuaren prezioaren erdia adinako kalte ordaina emango dio Toki Erakundeari, bermea galduta.	Cuando el contratista, en cualquier momento antes de la concesión del último plazo, renunciare a la realización del contrato deberá abonar una indemnización igual a la mitad del precio del contrato con pérdida de la garantía.
Kontratu hau azkendu ondoren, kasuan kasuko legerian (ikus SLPko 209. artikulua) eta administrazio-klausulen agiri honetan aurreikusitako arrazoi orokorrengatik, instalazioetan egindako hobekuntza guztiak Udalari itzuliko zaizkio, eta erabiltzen den materialak erabiltzeko egokiak izan beharko dute, eta, ondorioz, zerbitzua ematen jarraitzeko aukera eman beharko dute. Udaleko zerbitzu tekniko eskudunek maiz ikuskatuko dituzte eraikina eta instalazio guztiak, eta, beharrezkoa izanez gero, dagozkion jarduketak antolatuko dituzte. Instalazioaren itzulketa edozein karga edo kargatatik libre egin beharko da eta Hitzartutako aldia amaitu eta 15 egun naturaleko epe luzaezinean hustu beharko da instalazioa.	Una vez extinguido el presente contrato por cualquiera de las causas previstas con carácter general en la legislación pertinente (ver art. 209 LCSP), así como por las particulares establecidas en el presente pliego de cláusulas administrativas, se deberá hacer entrega de las instalaciones y del material en uso, en buen estado y deberán ser aptos para su utilización, y en consecuencia, deberán permitir la continuidad de la prestación del servicio. Los servicios técnicos competentes del Ayuntamiento, procederán a inspeccionar asiduamente el edificio y el conjunto de las instalaciones, y ordenarán, si fuese necesario, las actuaciones pertinentes. La entrega de la instalación deberá realizarse libre de cualquier carga o gravamen y el desalojo de la instalación, deberá producirse en el plazo improrrogable de 15 días naturales posteriores a la finalización del periodo pactado.
39. Klausula. Berme epea	**Cláusula 39.- Plazo de garantía**
Berme epea Kontratuaren Ezaugarrien Koadroaren **21. atalean** zehazten da eta URTE BETEKOA izango da. 2017ko SPKLren 311. artikuluaren arabera,	El plazo de garantía se establece en el **apartado 21** del Cuadro de Características del Contrato y será de UN AÑO. Conforme al artículo 311 de la LCSP 2017 si

berme-epean ikusten badu lanetan badela gaizki eginik edo akatsik, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari halako guztiak konpontzeko eskatzeko, aurreko klausulan ezarritakoaren arabera. Berme-epea amaitu eta Administrazioak ez badu eragozpenik edo salaketarik jarri, amaitu dira kontratistak prestazioarengatik zituen erantzukizunak.	durante el plazo de garantía se acreditase la existencia de vicios o defectos en los trabajos efectuados el órgano de contratación tendrá derecho a reclamar al contratista la subsanación de los mismos, de acuerdo a lo señalado en la cláusula anterior. Terminado el plazo de garantía sin que la Entidad Local haya formalizado reparo o denuncia, el contratista quedará exento de responsabilidad por razón de la prestación efectuada.
40. klausula. Bermea itzultzea.	**Cláusula 40.- Devolución de la garantía.**
Erregulazio harmonizatuko kontratuetan azpikontratistak edo hornitzaileak fakturak ordaintzeko akzioak egikaritzen dituenean kontratista nagusiaren aurrean, egoitza judizialean edo arbitraje-egoitzan, 2. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera ezarritako epea gainditu ondoren, kontratazio-organoak, ondorio guztiak hedatzen jarraitzeari kalterik egin gabe, behin betiko bermea behin-behinean atxikiko du, eta berme hori ezin izango da itzuli harik eta kontratistak egiaztatzen duen arte auziari amaiera ematen dion ebazpen judizial edo arbitraje-ebazpen irmoan aitortutako eskubideak osorik betetzen dituela, betiere lege honen 111. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira. Bermea ez da itzuliko edo iraungiko berme epea amaitu eta delako kontratua behar bezala bete arte, edo kontratu hori bertan behera utzi arte kontratistaren errurik gabe.	En los contratos sujetos a regulación armonizada, cuando el subcontratista o suministrador ejercite frente al contratista principal, en sede judicial o arbitral, acciones dirigidas al abono de las facturas una vez excedido el plazo fijado según lo previsto en el apartado 2, el órgano de contratación, sin perjuicio de que siga desplegando todos sus efectos, procederá a la retención provisional de la garantía definitiva la cual no podrá ser devuelta hasta el momento en que el contratista acredite la íntegra satisfacción de los derechos declarados en la resolución judicial o arbitral firme que ponga término al litigio, y siempre que se cumplan las condiciones establecidas en el artículo 111 de la presente ley. La garantía no será devuelta o cancelada hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía y cumplido satisfactoriamente el contrato, o hasta que se declare la resolución de este sin culpa del contratista.
Kontratuaren likidazioa onartu eta berme epea igarotakoan, inolako erantzukizunik ez badago, itzuli egingo da jarritako bermea edo ezeztatu egingo da abala edo kauzio asegurua.	Aprobada la liquidación del contrato y transcurrido el plazo de garantía, si no resultaren responsabilidades se devolverá la garantía constituida o se cancelará el aval o seguro de caución.
Itzultzeko erabakia bi hilabeteko epean hartu eta jakinarazi behar zaio interesdunari, berme epea amaitzen denetik aurrera kontatuta.	El acuerdo de devolución deberá adoptarse y notificarse al interesado en el plazo de dos meses desde la finalización del plazo de garantía.
Berme epea igarota, zor zaion kopurua ordainduko dio Administrazioak kontratistari,	Transcurrido el mismo, la Administración deberá abonar al contratista la cantidad

kopuru horri aipatutako epea amaitu denetik bermea itzultzeko egunera arte joandako epeari dagokion diruaren legezko interesa gehituta, bermea ez bada Toki Erakundeari egotzi dakiokeen arrazoi batengatik itzuli.	adeudada incrementada con el interés legal del dinero correspondiente al período transcurrido desde el vencimiento del citado plazo hasta la fecha de la devolución de la garantía, si ésta no se hubiera hecho efectiva por causa imputable a la Entidad Local.
Kontratuen lagapenaren kasuan, lagatzaileak jarritako bermea ez da itzuliko edo iraungiko lagapen hartzaileak berea formalki jartzen ez duen arte.	En los casos de cesión de contratos no se procederá a la devolución o cancelación de la garantía prestada por el cedente hasta que se halle formalmente constituida la del cesionario.
41. klausula. Kontratua suntsitzeko arrazoiak	**Cláusula 41.- Causas de resolución del contrato**
2017ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. eta 313. artikuluetan eta 294. artikuluaren c), d), y f) letretan finkatutakoez gain, honako hauek dira kontratua suntsitzeko arrazoiak:	Constituyen causas de resolución del contrato, además de las establecidas en los artículos 211 y 313 de la Ley de Contratos del Sector Público 2017 y de las señaladas en las letras c), d), y f) del artículo 294, las siguientes:
a) Plegu honetan eta baldintza Teknikoen Pleguan adierazitako era guztietako obligazioak eta baldintzak ez betetzea. b) Kontratuaren xedeko prestazioak emateko esleipendunaren ezintasun teknikoa. c) Kontratistak egindako ez-betetzeak nahasmendu larria eta beste baliabide batzuen bidez konpondu ezin dena eragitea.	a) El incumplimiento de las obligaciones y condiciones de todo tipo señaladas en éste y en el Pliego de Condiciones Técnicas. b) La imposibilidad técnica de la adjudicataria para cumplir las prestaciones objeto del contrato. c) Que del incumplimiento por parte del contratista se derive perturbación grave y no reparable por otros medios en el servicio.
Kontratua suntsitzeak, bermea galduta ala galdu gabe, ez die kalterik eragingo alde baten nahiz bestearen alde zuzenbidearen arabera eman beharreko kalte ordainei.	La resolución del contrato, con o sin pérdida de garantía, se producirá sin perjuicio de las indemnizaciones que a favor de una u otra parte fueren procedentes en derecho.
2017ko SPKLaren 308.2 artikulua. Zerbitzu kontratuak iraungitzean, kontratuaren xedeko lanak egin dituzten pertsonak inolaz ere ez dira erakunde kontratatzaileko langile gisa finkatuko. Horretarako, Administrazioko langileek edo arduradunek ez dute egin behar, harreman juridikoaren eta lan harremanaren parte gisa, enpresa kontratistari dagozkion ahalmenak erabiltzea dakarren ekintzarik.	Artículo 308.2 de la LCSP 2017. A la extinción de los contratos de servicios, no podrá producirse en ningún caso la consolidación de las personas que hayan realizado los trabajos objeto del contrato como personal de la entidad contratante. A tal fin, los empleados o responsables de la Administración deben abstenerse de realizar actos que impliquen el ejercicio de facultades que, como parte de la relación jurídico laboral, le corresponden a la

	empresa contratista.
42. klausula. Lizitazioak arau duen dokumentazioaren aurkako errekurtsoen araubidea	**Cláusula 42.- Régimen de recursos contra la documentación que rige la licitación**
Administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu arurretik, 2017ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44. artikuluan araututako Kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri daiteke 2017ko SPKLaren 44tik 60ra doazen artikuluetan adierazitako epe, baldintza eta efektuekin.	Con anterioridad a la interposición del recurso contencioso administrativo, podrá interponerse el recurso especial en materia de contratación regulado en el artículo 44 de la LCSP 2017, conforme a los plazos, requisitos y efectos señalados en los artículos 44 a 60 de la LCSP 2017.
Esleipen-prozeduran emandako egintzen aurkako kontratazio-arloko errekurtso berezia aurkeztu ahal izanez gero, ezin izango da administrazio-errekurtso arruntik jarri.	Al poder presentarse recurso especial recurso especial en materia de contratación contra los actos dictados en el procedimiento de adjudicación, no procederá la interposición de recursos administrativos ordinarios.
1. ERANSKINA: KAEB, A artxibo elektronikoan sartzeko.	ANEXO 1: DEUC, a incluir en el archivo electrónico A
2. ERANSKINA: Proposamen ekonomikoa B artxibo elektronikoan sartu beharrekoak.	ANEXO 2: MODELO proposición económica a incluir en el archivo electrónico B.

2. ERANSKINA. Proposamen ekonomikoaren eredua, B artxibo elektronikoan sartzeko	**ANEXO 2. Modelo de proposición económica a incluir en el archivo electrónico B**
..... . jaunak/andreak (Helbidea: …..... ..... NAN:…….....Telefonoa: ..... Helbide elektronikoa: ……) erabateko ahalmen juridiko eta jarduteko ahalmenarekin, bere izenean edo ..... (r)en ordezkari gisa (IFK: ..... Helbidea: .....),	D./Dña..... con domicilio en..... CP....., DNI nº....., Teléfono..... Dirección de correo electrónico…… en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de..... CIF.....con domicilio en .....
Euskadiko Kontratazioaren Plataforman BEASAINGO UDALAREN ASEGURU PRIBATUAK PROZEDURA IREKI, OHIKO IZAPIDETZE ETA ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO deitutako lizitazioaren berri jaso ondoren, honako hau aitortzen dut:	Tras conocer la licitación convocada en la Plataforma de Contratación de Euskadi la licitación para LA CONTRATACIÓN DE LOS SEGUROS PRIVADOS DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO, TRAMITACION ORDINARIA Y SUJETO A REGULACIÓN ARMONIZADA, declaro:
1.) Kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, prezio hauen truke:	1º) Que me comprometo a su ejecución por los siguientes precios unitarios:
- **1. Zatia**: Beasaingo Udalaren Ondarea osatzen duten ondasun higiezinei (edukitzailea eta edukia) eta higigarriei egindako kalteak. (Poliza eta iraupen osorako eskainitako prima, beregain hartuz arriskuaren %100).	- **Lote 1**: Daños a inmuebles (continente y contenido) y muebles que integran el Patrimonio del Ayuntamiento de Beasain. (prima ofertada para la totalidad de la póliza y duración, con asunción del 100 % del riesgo)
Prima garbia: Kontsortzioa: Errekarguak, kargak, zergak: PRIMA OSOA:	Prima neta: Consorcio: Recargos, gravámenes, impuestos: PRIMA TOTAL:
- **2. zatia**: Hirugarren batekin Beasaingo Udalak izan dezaken erantzukizun zibila/ondarekoaren ondorioz sortutako kalteak, jabetza publikoko eta ondarezko jabetzako ondasunen titularra denez, bai eta zerbitzu publikoak ematen dituenez, eta baita ere ikuskizun eta festa ekitaldiak antolatu eta ospatzeagatik izan dezaken erantzukizunagatik, su artifizialak, barraka	**- Lote 2**: Daños a consecuencia de la Responsabilidad Civil/Patrimonial en que pueda incurrir el Ayuntamiento de Beasain frente a terceros, en su condición de titular de bienes de dominio público y patrimoniales, así como prestadora de servicios públicos, incluso en aquella responsabilidad en la que pueda incurrir como consecuencia de la celebración y organización de espectáculos y actos

instalakuntza, Erraldoi eta Buruhaundien konpartsa, errege zamalkadak, Olentzero irteera eta karroza desfileak eta antzekoak barne. Erantzukizun zibil zuzena, subsidiarioa edo solidarioa estaltzea, Beasaingo Udalari, Ezkiaga auzoko eta San Martin plazako hizkuntza errefortzu zerbitzuei buruzko jarduerak; kirol motako udalekuak, bai udal esparruetan eta baita ere ekintzak aire zabalean.(Poliza eta iraupen osorako eskainitako prima, beregain hartuz arriskuaren %100) Prima garbia: Kontsortzioa: Errekarguak, kargak, zergak: PRIMA OSOA: - **3. zatia: Ibilgailu flota**: (Poliza eta iraupen osorako eskainitako prima, beregain hartuz arriskuaren %100) Prima garbia: Kontsortzioa: Errekarguak, kargak, zergak: PRIMA OSOA: - **4. Zatia: Kargu publiko eta enplegatuen erantzukizun zibil profesionala**: Beasaingo Udalaren zerbitzura dauden agintari eta pertsonalak, hirugarren batekin, bere agintaritza edota funtzioak betetzerakoan erantzukizun zibil profesionalaren ondorioz sortutako kalteak; hemen sartuko dira, modu jarrai batean bere zerbitzu profesionalak eskaintzen dituzten pertsona fisikoak, hala nola, karreradun funtzionarioak, behin behineko funtzionarioak, praktiketako funtzionarioak, pertsonal ebentuala edo lan kontratu bidez, finkoa edo aldi baterakoa, eta zuzenbide publiko edo pribatu bidez arautua, eta baita ere hautatutako kargu eta kargu politikoak.	festivos, incluída la instalación de barracas y la quema de fuegos artificiales, comparsa de gigantes y cabezudos, hoguera de San Juan, cabalgatas, salida Olentzero, desfiles con carrozas y similares. Asímismo , será cubierta la R.C. directa, subsidiaria o solidaria que pudiera ser imputada al Ayuntamiento de Beasain, por la actividad propia del servicio de refuerzo lingüístico de Ezkiaga Auzoa y S. Martin Plaza, y actividades inherentes al mismo; organización de colonias de Deporte en recintos municipales e incluso con actividades en el exterior (prima ofertada para la totalidad de la póliza y duración, con asunción del 100 % del riesgo) Prima neta: Consorcio: Recargos, gravámenes, impuestos: PRIMA TOTAL: **- Lote 3: Flota de Vehículos**: (prima ofertada para la totalidad de la póliza y duración, con asunción del 100 % del riesgo) Prima neta: Consorcio: Recargos, gravámenes, impuestos: PRIMA TOTAL: - **Lote 4: R.C. Profesional de cargos públicos y Empleados**: Daños a consecuencia de la Responsabilidad Civil Profesional en que puedan incurrir las autoridades y el personal al Servicio del Ayuntamiento de Beasain, frente a terceros, en relación con el ejercicio de su autoridad y/o el desempeño de sus funciones, incluyendo tanto a las personas físicas que presten sus servicios profesionales mediante una relación de carácter continuado tales como funcionarios de carrera, funcionarios interinos, funcionarios en prácticas, personal eventual o mediante contrato laboral de fijo o temporal y regida por el derecho público o privado, como aquellas otras personas que sean cargos electos y cargos políticos.

Prima garbia: Errekarguak, kargak, zergak: PRIMA OSOA: Preskripzio teknikoetan agertzen diren ezaugarrien arabera, eta prezioan sartzen dira kontzeptu guztiak, barne harturik edozein zerga esferaren zergak, gastuak, tasak eta arielak, bai eta enpresariaren irabazi industriala ere. 2.) Ondorengo frankiziekin gauzatuko dudala hitz ematen dut: 1. ZATIA: -Ondasun higiezinei (edukitzailea eta edukia) egindako kalteen aseguruko frankizi orokorra: ……. € ezbeharreko. -Ondasun higiezinei egindako kalteen aseguruko matrikulak irakurtzeko kamarentzako eta informazio pantailentzako frankizi berezia: …… € ezbeharreko. 2. ZATIA: -Erantzukizun Zibilaren aseguruaren frankizia: …….. € ezbeharreko. -Erantzukizun Zibileko polizan aseguratutako mugak: ezbeharreko eta aseguru urteko …… €ko aseguratutako muga eta …….. €ko azpimuga biktimako, polizaren berme guztiei aplikagarria. 3. ZATIA: -Beasaingo Udalekoak diren ibilgailuei hirugarrenen izaera ematea, euren arteko kolpeetan eta Udalaren berezko ondareari kolpeak: BAI-EZ (zirriborratu ez dagokiona).	Prima neta: Recargos, gravámenes, impuestos: PRIMA TOTAL: Conforme a las características que figuran en las prescripciones técnicas, debiendo entenderse comprendidos en el precio todos los conceptos incluyendo los impuestos, gastos, tasas y arbitrios de cualquier esfera fiscal al igual que el beneficio industrial de la empresa contratada. 2º) Que me comprometo a su ejecución con las siguientes franquicias: LOTE 1: - Franquicia general del seguro de daños a inmuebles (continente y contenido): …..€, por siniestro. - Franquicia específica para cámaras de lectura de matrículas y pantalla de información del seguro de daños: …..€, por siniestro. LOTE 2: - Franquicia del seguro de RC: …..€, por siniestro. - Límites asegurados en la póliza RC: límite asegurado de……....€ por siniestro y anualidad de seguro con un sublímite por víctima de ……..…..…€ aplicable a todas las garantías de la póliza. LOTE 3: - Consideración de tercero a los vehículos propiedad del Ayto de Beasain para colisiones entre si y al propio patrimonio del Ayto: SI – NO (tachar lo que no proceda).

-Hirugarren mailako ibilgailuei sutearen bermea eskaintzea: BAI-EZ (zirriborratu ez dagokiona)

-Hirugarren mailako ibilgailuei sutearen bermea eskaintzea: BAI-EZ (zirriborratu ez dagokiona)

4. ZATIA:

-Erantzukizun Zibilaren aseguruaren frankizia: …….. € ezbeharreko.

-Erantzukizun Zibileko polizan aseguratutako mugak: ezbeharreko eta aseguru urteko …… €ko aseguratutako muga eta hedabideekin komunikazio eta erlazioetarako ezbeharreko …… €tako azpimuga.

3.) Irakurri ditut baldintza teknikoen agiria, administrazio-baldintza partikularren agiria eta kontratua arautzen duten gainerako dokumentuak, eta ontzat hartzen ditut, oso-osorik.

4.) Ordezkatzen dudan enpresak irekiera, instalazio eta funtzionamenduaren gainean indarrean dagoen araudiko betekizun eta eginbehar guztiak betetzen ditu.

5.) Eskaintzan kontuan hartu ditugu, batetik, zerga-sistemaren, generoarekiko berdintasuna, ingurumenaren babesaren, enpleguaren babesaren, genero-berdintasunaren, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen gainean indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betekizunak; eta bestetik, desgaitasunak dituen pertsona-kopuru edo -portzentaje jakin bat kontratatzeko betebeharra. Hala, hori guztia beteko dudala hitzematen dut.

.....n, 20.... (e)ko ..... ren ..... (e)an.

Sinadura

- Garantia de incendio en vehículo de tercera categoría: SI – NO (tachar lo que no proceda).

- Garantia de robo en vehículo de tercera categoría: SI – NO (tachar lo que no proceda).

LOTE 4:

- Franquicia del seguro de RC: …..€, por siniestro.

- Límites asegurados en la póliza RC: límite asegurado de……....€ por siniestro y anualidad de seguro con un sublímite para gastos de comunicación y relaciones con los medios de ……..…….€ por siniestro.

3º) Que conozco el Pliego de Prescripciones Técnicas, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.

4º) Que la empresa a la que represento, cumple con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para su apertura, instalación y funcionamiento.

5º) Manifiesto que, en la oferta se han tenido en cuenta las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, igualdad de genero, protección del medio ambiente, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje especifico de personas con discapacidad, y que me obligo al cumplimiento de todo ello.

En....., a….. de….....de 20.....

Firma

Balio Erantsiaren gaineko Zerga agertu behar da eskaintzan, xehaturik. Gainera, kontratuari aplikatu dakizkiokeen oinarria eta zenbatekoa adieraziko dira, hura erregulatzen duen araudiaren arabera.	En la oferta deberá figurar de manera desglosada el Impuesto sobre el Valor Añadido, indicando tipo e importe aplicable al contrato conforme a su normativa reguladora.
2023ko martxoaren 2ko osoko bilkuran onartutako plegua.	Pliego aprobado en la sesión plenaria del 2 de marzo de 2023.